



## IKUSKATZAILE TALDEA

Kasu honetan, barneko langileek gauzatzen dituzten barneko auditoretzak egiteko auditoretza-taldeaz ari gara.

Ikuskatzailerik onena(k) aukeratzeko, gomendagarria da ebaluazio-orria prestatzea. Orri hori zuzendaritza-taldeko ordezkari batek eta auditoretzetan aditu batek beteko dute.

Ebaluazio-orriak pertsonak auditoretzak egiteko duten gaitasuna (zuzentzeko, kudeatzeko... gaitasuna) aztertu beharko luke.

Auditoretza-taldea hautatu ostean, eta bere eskumenak mantentzeko, honako hauek gauzatu behar dira:

- Egiaztatu egin behar da ikuskatzaileek auditoretzetan erabiliko dituzten egungo araua, legeak eta araudiak ezagutzen dituztela.
- Ziurtatu egin behar da auditoretzak egiteko metodo berriei buruzko prestakuntza dutela. Urtero aztertu beharko da prestakuntza osagarria behar duten ala ez.
- Ikuskatzaileak ebaluatu beharko dira gutxienez hiru urtean behin. Aztertu egin behar dira egindako auditoretzen emaitzak, ikuskatzaile-buruaren oharrak....

Elikagaien segurtasunaren arloko barne-ikuskatzaile prestatua izateko, interesgarria litzateke:

- Entzule gisa bizpahiru auditoretzetan parte hartu izana.
- Auditoretzen arloko prestakuntza izatea.
- Elikagaien segurtasunaren arloko prestakuntza izatea.

